

LUR ETA AMETS

Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponce-ren animazio film bat

Irakasleen txostena

KOLEGIOA ZINEMARA



Euskaraz

Eskerrak

Cinévasion elkarteak eskertzen ditu esperimentazioan parte hartu duten partaide instituzional guztiak eta bereziki: Kultura Gaietarako Akitania Berria Eskualdeko Zuzendaritza, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko zerbitzu kulturala, Sandra Mourad (Délégation Académique à l'Action Culturelle), Marie-Sophie Decout (CNC), EEPko zerbitzu teknikoak, Santiago Hidalgo (Passeurs d'Images elkarte), Xavier Grizon (Cinéma 93), Johaïne Etchebest (EKE), Frank Suarez (EKE), Elise Dilet (Ikas), Thierry Méranger, Gastibeltza Filmak banatzailea, Gariza Films ekoiztetxea, Jokin Etcheverria (La Fidèle Production), Thierry Méranger, Txomin Urriza Luro, Uxue Arbelbide Lete.

Milesker handi bat Mathilde Trichet zine erakasleari berrirakurketa eta kontseilu guztientzat.



Aitzinsolasa

Txosten pedagogiko hau apailatu da eskualde-hizkuntzako laugarren filma aurkezteko Kolegioa Zinemara dispositibora. Eskualde-hizkuntzan den programazio berri honetan programazio aukera bat baino gehiago agertzen da, eta sar hitz gisa aurkeztu dugu laburki.

- **Zergatik proposatu laugarren film bat eskualde-hizkuntzan irudiaren aldeko heziketa dispositiboaren kariatara?**

Tokiko zinema-ekoizpenaren parte bat aitzinera emateaz gain, gure lurraldeko kultura eta hizkuntza berezitasuna baloratu nahi dira, irakaskuntza eskaintza mota desberdinei egokituz.

Horretarako, Cinévasion elkarteak, Departamenduak, Hezkuntza Ministerioak eta ekimen horren parte diren partaide guziek apustua egin dute euskal sorkuntza zinematografikoa ikasleen arte eta kultura heziketa xede duen dispositiboan sartzeko.

- **Zer dakar horrek? Eta espero den zer emaitza lortzeko?**

Arreta berezia jarri da irudiaren aldeko heziketa eskualde-hizkuntzan egina izan dadin, irakasleei parada emateko ekimen hori osoki ikasleen hizkuntza-ikaskuntzan sartzeko. Halaber, espermentazio hori euskaldunak ez direnentzat ere arrunt ulergarri izanen da frantseseko azpтитuluak izanen baitira eta euskarri pedagogikoak apailatuko baitira bi hizkuntzetan, tokiko sorkuntza ezagutarazteko, baloratzeko eta helgarri egiteko. Horrela, irakasleak parada ukanen du ikasleen jabetze lexikalak eta analisi metodoak probatzeko. Argumentatzearen praktika sustatzen ahalko du zinema gelan edo ikasgelan, gaitasun mota desberdinak ebaluatzeko ikasleen arabera: sintesia, ulermena, analisisa, ahozko edota idatzizko adierazpena, urruntasun kritikoa...

Ikasleek ikerketa edo gogoeta bide orokorra josteko parada ukanen dute aurkeztua zaien filmaren eta hurbileko hizkuntza eta kultura ingurumenaren artean.

Azkenik, gure lurraldeko kulturaren eta hizkuntzen baloratzeaz gain, espermentazioak, proposatzen dituen jarduera gehigarrien bidez, parada ematen die ikasleei eta irakasleari zeharkako ikusmolde berri-tzailearekin lan egiteko, zinemako lanbide-etan eta adarretan trebatuz oraino gehiago. Ikasle bakoitzaren Arte eta Kultura Heziketa libilbidearen elikatzeko pentsatua da.

- **Lur eta Amets, kolegioko 6. eta 5.eko ikasleentzat bidaia bat denbora animatuan zehar**

Izen bereko haur eta gazte literaturako liburu serie baten egokitzapena da 2020an sortu animaziozko film hau. Bi anai-arreba biritxiren eta haien amaxiren abenturak kontatzen ditu: arbasoen ezagutzero doaz ahalmen misterioitsu bati esker... Inizazio kontakizuna da, protagonista gazteei beren burua hobeki ezagutzeko parada emanen diena besteen jujamendutik edo jendarteak norberarenganik igurikatzen duenetik libratzeko. *Lur eta Amets* filmari buruzko txosten pedagogiko honek irakasleei bide bat baino gehiago eskaintzea du xede haien ikasleekin ikusmolde pedagogikoak anizteko. Inizazio bidaiatik hasirik euskarazko animazio-filmaren historia laburrera, nahi genuke irakasleak baliabide franko atzeman ditzan aipatuak diren gertakari historikoak lantzeko, baita ere gure ipuin eta kondairen intrigari berriz lotzeko.

Fitxa teknikoa	3
Zuzendariak	5
Genesisia	8
Kontakizuna	9
Animaziozko zinema euskaraz	11
Narrazioaren mozketa	13
Sekuentzia baten analisisa	14
Eszenaratzea	16
Luzapen gisa	20
Zinemaren hiztegitxoa	22

Txostenaren idazlea:
Itziar Madina

Parte hartzaileak:
Stéphanie Hontang,
Maitane Eyheramonho,
Joana Duhalde,
Katixa Monville



Fitxa teknikoa

● Sinopsia

Euskal Herrian, Lur eta Ametsen burasoek ezkontza bate-ra doaz asteburuan, haurrak amatxi Andereren etxean utziz. Baltaxar gatuarekin bizi da Andere, etxalde handi batean. Arratsean, supazter xokoan, Anderek Lur eta Amets ilobasoei arbasoen historia kontatzea proposatzen die, denboran zehar bidaiatuz. Lurreko lehen gizakien istorioa kontatzen hasten da; orduan, Lur eta Amets leizezilo batean daude, historiaurreko gizakien babeslekuan. Lehen bidaiia horren ondotik, Andere eta haurrak orainera itzultzen dira. Lur eta Ametsek, lehen bizipenarekin liluraturik, amatxiri galdetzen diote beste ipuin bat kontatzea. Baltaxar gatuaren ondotik etxetik kanpora atera, eta gero, erromatarren okupazioaren garaira bidaiatzen dute. Laster, bi soldadu erromatarrek haurrak atxilotzen dituzte, eta zubi bat eraikitza behartuak dira. Andere, haiek sokorritzera doa eta laminei laguntza galdatzen die zubia gau bakar batean eraikitzeko. Erromatarren garaiaren ondotik, Erdi Arora bidaiatzen dute. Anai-arrebek, ahalgabe, lehenik Karlomagnoren tropen inbasioa eta gero Inkisizioak burutu sorgin-ehiza ikusten dituzte. Ondotik, berriz etxera itzuli eta Lur eta Amets mokoka aritzen dira. Orduan, Anderek, paradaz baliatuz, bi umeak,

XIX. mendearen lehen erdian Euskal Herria zatitu zuen gerletako batera eramaten ditu, liberalak eta karlistak elkarren kontra ari izan ziren garaira. Denboran zehar egindako bidaiak segitzen du gero, eta industria-arora doaz Lur eta Amets; orduan, lan baldintza hobeak galdatzen dituzten emazte langileen matxinada baten lekuko dira. Hamarkada batzuk geroago, Francoren diktadurapean, amonarekin Donostiara itzultzen dira, han ikastola klandestino bat sortzeko. Berantago, 1980ko hamarkadan, Lur, Amets eta Felix –familiako beste kide bat– atxilotzen ditu poliziak, karrikan “Soldaduskarik ez!” idazteagatik. Kartzelan sartzen dituzte eta uraren gorakadak harra-patzen ditu, uholde bat Elgoibarreko herria suntsitzen ari baita. Baltaxarrek zeldatik libratzen du hirukotea. Uholdeak instant batez herria suntsitzen segitzen du, eta, azkenean, bazterrak berriz lasaitzen dira. Hertzainak rock taldeko kideen musika tresna bat uretatik salbatu dute Lur eta Ametsek. Kontzertu gela konpontzen dute eta familia guzua doa Hertzainak taldearen kontzertua ikustera. Historian zehar egindako bidaiia luze horren ondotik, haurrak burasoekin berriz elkartu eta autoz doaz etxera, bidean Hertzainak-en kantu bat entzunez.

● Partaideen zerrenda

LUR ETA AMETS
Euskal Herria | 2020 | 1 h 23

Zuzendariak

Imanol Zinkunegi, Joseba Ponce

Gidoia

Eneko Olasagasti, Carlos Zabala

Irudi-gidoia

Jose Angel Lopetegi, Iñaki Holgado

Honako liburu honen egokitzapena

Lur eta Amets, Euskal Herriaren

historia, Uxue Alberdi,

Unai Elorriaga

Irudia

Eduardo Elozegi

Zuzendari artistikoa

Aitor Etxebeste

Muntaketa

Imanol Zinkunegi, Joseba Ponce,

Aitor Etxebeste, Pixel

Musika

Joxerra Senperena

Nahasketa

Iñigo Etxarri

Ekoizpena

Lotura Films, Ikastolen Elkartea,

Elkar Fundazioa, Katxiporreta, EITB

Banaketa

Gastibelza filmak

Argitalpena

2020ko otsailaren 7a

● Gako-hitzak / gaiak

Abentura filma / Animaziozko filma / Ahozko transmisioa / Euskal Herriko historia / Neolitikoa / Garai erromatarra / Karlomagno / Sorginkeria eta sorgin auziak Euskal Herrian / Espainiako Inkisizioa / Karlismoa eta liberalismoa Euskal Herrian / Industrializazioa / Ikastolen sorrera / Gaztetxeak (1980ko hamarkadatik aitzina Hego Euskal Herriko hiri ertainetan gazteek kudeatu eta usu okupatutako lekuak).

● Kolegioko programan diren nozioak

Euskara

Ezagutza historikoa, filmak proposatu garai historikoen artean hautatzeko.

Kultura-egagutza: ahozko literatura, kristautasunaren aitzineko sinesteak, "laminak" pertsonaia mitologikoak, sorginkeria eta sorgin auziak, *Ara nun diran* eta Jose Maria Iparragirre olerkari eta kantari erromantikoa (1820-1881). Euskal animaziozko zinema: Juanba Berasategi, zuzendaria.

Hizkuntzaren ezagutza: euskalkiak eta euskara batua.

Frantsesa

Gaztelera: eskola eta gizartea, bidaiak eta migrazioak, erreferentzia historiko nagusia.

Historia

Irakaskuntza moral eta zibikoa

Arte plastikoak

Ibilbidea: Gaitasunen Oinarri Komune 5. arloa (**Munduaren antolaketa eta irudikapena:** ahoz eta idatziz adieraztea literatura edo arte obra batek sortutako sentipenak; zuzenean edo zeharka, batez ere eskolako ateraldi kulturaletan, estatuko eta nazioarteko ondarearen parte diren eta garaikideak diren literatura edo arte obrak ezagutzea. **Asmakuntza, elaborazioa, ekoizpena:** hizkuntzak ikastearekin batera, bizimoduen eta kulturen aniztasuna ezagutzea).

Zuzendariak

Bikote dinamikoa

Lotura Films ekoiztetxearen filmei jarraikiz, Imanol Zinkunegi eta Joseba Poncek abentura kontakizun bat proposatzen dute, euskaraz, lurralde jakin bateko historian eta kulturen oinarritua.

Bi urte. Hau da filmeko irudi animatuak sortzeko behar izan den denbora. Film luzea 2020ko otsailaren 7an aurkeztu zen jendaurrean, justu COVID-19aren pandemiak eragin-dako konfinamendua baino lehen. Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponce beste 60 profesionalekin ari izan ziren elkar-lanean, besteak beste, Jose Angel Lopetegi eta Iñaki G. Holgado ilustratzaileekin eta Eneko Olasagasti eta Carlos Zabala gidoilariekin. Zinkunegi eta Ponce lehenago ere ari izan ziren elkarlanean. Hala, *Gartxot* (2011), *Nur eta Herensugearen tenplua* (2016) eta *Bizipoza* (2017) eta film luzeen animazioaren zuzendariak izan ziren.

● Bi ibilbide osagarri



Imanol Zinkunegi

Imanol Zinkunegi Azpeitian sortu zen, 1968an. Egun, Donostian bizi da, eta Lotura Films ekoiztetxean egiten du lan. Haurra zelarrik, ez zitzaion eskola gustatzen, eta ikasle txarra zela dio. Eskolako klase aspergarrietan, leku guzietan –liburuetan, ikasliburuetan...– marrazten zuen. Bere ama asaldatzen zuen horrek, anai-arreba gaztea-goentzat zirrimarraz beteriko eskola liburuak berreskuratzeaz penatua baitzen. Hogeitaz urte zituela, ustekabe bitxi baten ondorioz, Juanba Berasategi euskarazko marrazki zinemaren aitzindariaren animazio-tailer batean parte hartu zuen. Orduan, Berasategiren animatzaile taldean sartu zen, Bailearenak (1991) film luzea egiteko. Lehen topaketa horretatik aitzina Berasategirekin ari izan zen lanean, eta animatzaile gisa parte hartu zuen haren ondoko film luze guzietan: *Ipar haizearen erronka* (1992), *Ahmed: Alhambrako printzea* (1998) eta *Alhambrako giltza* (2003). Marrazki

bizidunen animazioan ere parte hartu zuen: *Fernando Amezketarra* (1994-1995), *Lazkao Txiki*¹ (1997-1999) eta *Txirrita* (1999-2000). Koldo Izagirre idazleak gidatu hiru tele-sail hauek bertsolari ospetsuak aurkezten dituzte. Euskal Herriko ahozko tradizioa dira bertsoak, eta bakarrik edo taldean inprobisaturik kantatzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko EITB kate publikoan arrakasta handia izan zuten baserrialdeko gizon xume eta bertso kantari horien lotsagabekeria eta hitz-jokoek.

2005ean, Zinkunegik haurrendako lehen film luzea egin zuen, *Pailazokeriak*. Film luze horretan, Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoez Lady Kontroli buru egin behar diote, haurrei irri egitea eta jostatzea debekatu nahi baitie.

Ondotik, Juanba Berasategiren film luzeetarako lanean jarraitu zuen animazio-zuzendari gisa: *Barriola, San Adriango azeria* (2008), *Tormesko Itsumutila* (2011) eta *Nur eta Herensugearen tenplua* (2016). 2013an, bideoklip labur bat egin zuen Juanba Berasategirekin, Joxemi Zumalaberren marrazkietatik abiatuz, Gladys del Estal militante ekologis-tari omenaldia egiteko. Poliziak hil zuen Gladys, 1979an, Lemoizko zentral nuklearraren² aurkako manifestazio batean.

Zinkunegik beste zenbait filmetan ere egin zuen lan anima-tzaile gisa, hala nola 2001eko Goya sarietan animaziozko film onenaren saria jaso zuen Joxean Muñoz eta Txabi Basterretxeren *Karramarro Uhartea* (2000) filmean, Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordiren *Gartxot* (2010) film luzean eta Gregorio Muroren *Zeinek gehiago irau*³ film laburrean.



Pailazokeriak, 2005, © Lotura Films

- 1 www.youtube.com/watch?v=89SWepcitjg&list=PL1fNVLO3IGQQx8t4HCbeKK33BE9K1A8-Z
- 2 vimeo.com/57264839
- 3 www.kimuak.com/fr/court-metrag/2011/zeinek-gehiago-irau



Joseba Ponce


Joseba Ponce, Hondarribian sortu zen, 1974an. Musikaren mundutik dator. Diseinu grafikoko ikasketak egin ondoren, euskal musika talde askoren diskoen azalak egiten hasi zen, besteak beste, Negu Gorriak, Anestesia eta Joxe Ripiau taldeenak. Aldi berean, euskal musika eszenako bi taldeetako kide izan zen, baxu jotzaile gisa post-hardcore musika jotzen zuen Dut taldean, eta gitarrista gisa Kuraia punk-rock taldean.

2008an hasi zen marrazki zineman lanean. Orduan, *Munduaren Bira* animaziozko filmeko dekoratuak marraztuzituen. Gainera, konposizioan espezializatzen hasi zen. Animaziozko film batean konposizio operadore-lana fabrikazioaren azken etapari dagokio, hau da, dekoratuen eta pertsonaien geruza guztiak bateratzeari, kameraren efektuak zehazteari eta zenbait mugimendu eta efektu berezi animatzeari.

2010ean, Imanol Zinkunegirekin topo egin zuen. Biak *Gartxot* animaziozko filmaren zuzendariak izan ziren 2011n. 2013an, bere dohain ugariak *Zenbatak* animaziozko seriean uztartu zituen; orduan, animazioan, dekoratuen fabrikazioan, konposizioan eta soinu-bandan lan egin zuen.

2015ean, *JP Lohian & Klonen Klana* izeneko diskoa plazaratu zuen, ia bakarrik egin: diskoko kantu guztiak idatzi zituen, instrumentuak jo eta grabatu (gitarra, baxua, bateria, sintetizadoreak), eta, azkenik, diskoaren azala diseinatu zuen. *Alperrik da apaintzea*⁴ abestirako animaziozko bideoklip bat ere egin zuen, zientzia-fikziozko mundua sortuz. Musika giro ilunak gustatzen zaizkio, eta, hark dioenez, beti izan da musika kultura «zikin»⁵ batean murgildua: hard-rock, punk-hardcore, 70eko hamarkadako rock psikodelikoa...


Zinkunegirekin batera lanean jarraitu zuen ondotik, Berasategiren *Nur eta Herensugearen tenplua* (2016) filmaren animazioan, eta gero *Bizipoza* (2017) entzumen urriko jendeentzat egokitu marrazki bizidunetan. 2017an, *Lur eta Amets* animaziozko filmaren zuzendaria izan zen, Zinkunegirekin batera. Euskal Herriko historiako gertakari garrantzitsuenetako batzuk kontatzen ditu filmak, eta, besteak beste, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako euskal rock erradikalaren ikurra izan zen Hertzainak musika taldea aitzinera ekartzen du.



© JP Lohian & Klonen klana, 2015

⁴ www.youtube.com/watch?v=LlcWFO0Dzmk

⁵ www.berria.eus/paperekoa/1858/028/001/2015-10-29/gazte-martziaroen-falta-sumatzen-dut.htm



© Tolosaldeko ataria

● Talde lana, Juanba Berasategiren laguntzarekin (1951-2017)

Imanol Zinkunegik urte luzez lan egin zuen Juanba Berasategi zuzendariarekin, hau da, animaziozko filmak ekoizten dituen Lotura Films ekoiztetxearen sortzailearekin. Hasieran, *Lur eta Amets* proiektuaren parte zen Berasategi, baina, 2017an hil zen. Orduan, Zinkunegik eta Poncek, jadanik proiektuan parte hartzen baitzuten, filma elkarrekin zuzentzea erabaki zuten. Juanba Berasategiren eta Lotura Films-en aurreko filmen trebetasunari jarraikiz, film honetarako ere paleta grafiko batean marrazketa lauaren teknikaren aldeko apustua egin dute. Digitalizazioari esker, lan karga pixka bat arindu ahal izan dute, baina artisau-lana eta lan luzea izan da. Objektu guti batzuk bakarrik –hala nola autoak eta tranbiak– 3D-tan egin dituzte lehenik, eta berriz marraztu gero, gainerako irudietatik bereiz ez daitezkeen.

Zinkunegik dioenez, Atlantikoaz haraindiko edo Europako beste ekoizpen batzuekin konparaturik, profesional guti batzuen artean egin dute *Lur eta Amets*.

Talde artistikoan parte hartu du, adibidez, Jose Angel Lopetegi diseinatzaileak. Bere ibilbide luzea 1980ko hamarkadaren hasieran hasi zen, *El Jueves* komiki satirikoan eta *Gabai*. *Gure herriaren historia* bezalako historia ezagutarazteko komikietan. 1988 eta 1990 urteen artean 24 tomotan argitaratu zuten komiki bilduma hura Steso ezizenarekin sinatu zuen artista taldeko kide izan zen Lopetegik. Laster, José Ángel Lopetegi animazioaren munduan sartu zen, eta, hala, 1985ean Juanba Berasategik zuzendu zuen *Kalabaza tripontzia* izeneko bere lehen film luzean parte hartu zuen.

Iñaki G. Holgado ere parte hartu du *Lur eta Amets* filman. Badu hogeitaz baina gehiago Euskal Herrian eta Frantzia komikiak argitaratzen dituela. Ikastolen Elkarteak argitaratu *Xabiroi* aldizkari pedagogikoan parte hartzen du eta Bamboo argitaletxerako marrazten du. Pertsonaiak sortzen ditu ere, eta animaziozko film luze eta telesailentzako irudi-gidoiak marrazten ditu. Lotura Films ekoiztetxearekin lan egiten du 2015etik, hots, Juanba Berasategik zuzendu zuen *Nur eta Herensugearen tenplua* azken film luzearen ilustrazio-lanean ari izan zenetik.

Lur eta Amets animaziozko filman, Holgado eta Lopetegi irudi-gidoilariak dira, eta Carlos Zabala eta Eneko Olasagasti gidoilariarekin elkarlanean ari izan dira. Azken honen arabera, *Lur eta Amets* filma «*bidaia magiko*» bat da, eta pelikula bakarrean Euskal Herriaren historia ezagutarazteko aukera ematen du. Beraz, argi da filmaren xedea didaktikoa dela.

Haatik, euskal animaziozko zineman badira iragan historikoko gaiak edo Euskal Herriko antzinako kondairak jorratzen dituzten film gehiago ere. Aipa daitezke, adibidez, *Pitxu alfer haundi* (1984) film laburra, *Kalabaza tripontzia* (1985) film luzea, *Fernando Amezketa* telesaila (1994-1996) edo *Gartxot* (2011) filma.

Genesisia

Komikitik animaziora

- Motibazio bat: Euskal Herriaren historia berreskuratzea

Animaziozko filma izan aitzin, *Lur eta Amets* argitalpen proiektu oso baten izenburua da. Mahai joko bat, ilustrazio-album bat eta haur eta gazte literaturako bederatzi eleberri biltzen ditu, Elkar eta Katxiporreta argitaletxeek 2015ean eta 2016an argitaratuak, Ikastolen Elkartaren laguntzarekin.

Helburua da «*Euskal Herriaren historiaren pertzepzioa berre-raikitzea (...)»* eta ahalik eta jende gehienarengana iristea. Editoreek eta Ikastolen Elkartek egin ohar batetik abiatzen da proiektua: Euskal Herriko historiari buruz hurrei egokitu baliabide pedagogikoak eskas dira, eta hori aldatu behar da.

Proiektua aurrera eramateko, Elkar, Katxiporreta eta Ikastolen Elkartek Jesus Mari Olaizola “Txiliku”, Manuel Arregi, Uxue Alberdi eta Unai Elorriaga idazleengana jo zuten. Haur eta gazte literaturako idazleak dira denak, eta, horietarik hiruk, Euskadi Literatura Saria irabazi dute. Elorriagak, gainera, Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso zuen 2002an, eta Espainiako Kritikaren Saria bi aldiz, 2014an eta 2020an.

Hasierako proiektua gazte-album batzuen bidez Euskal Herriko historia kontatzea bazen ere, Imanol Zinkunegi zuzendariak zehaztu zuen, filma egokitzeko, eleberrietan kontatu gertakari historiko guzien artean batzuk hautatu behar izan zituztela.

Filmak, beraz, giltzarri eta maiz ezezagunak diren hainbat garai aipatzen ditu: Orreagako gudua eta Erdi Aroko sorginen jazarpena, Bilboko tabako fabriketako emakume langileen lehen grebak, Elbira Zipitria bezalako andereñoek sortutako ikastolak Francoren diktadura pean, eta 1980ko mugimendu antimilitarista.

[...] film osoaren ikusteak Euskal Herriko historiaren ikuspegi diakronikoa eskaintzen du eta oroimenerako erronka interesgarriak planteatzen ditu.



- Irudi animatuak eta memoriaren transmisioa

Hatsarretik, gizon-emazteek hitz, dantza, kantu eta irudiak uztartzen jakin dute, jendartearen balio eta sinesmenen oinarri izan diren ipuin edo mitoen berri emateko. *Lur eta Amets*. *Oroimenaren ehizan* filman, Anderrek korrante elektrikoa moztu du etxean, ilobasoak ordenagailuaren pantailatik urrundu eta supazter xokoan jartzeko. Egun horretan zer egin duten eta eskolan zer “historia” ikasten duten galdetzen die. Harriturik, Lur eta Amets ohartzen dira «*jendea edo jende multzoak bezainbat historia*» daudela, eta amonak nahi duela ilobasoek euskaldunen historian zehar “bidaia” dezaten. Horretarako, nahikoa da suari begira-begira geratzea. Orduan, tximiniako sua leize-zilo bateko sua bilakatzen da, eta eszena berriak Neolitikora garamatza.

Filmaren hasierako izenburua hau zen: *Lur eta Amets*. *Oroimenaren ehizan*. Azpituak filmaren lehen sekuentzi-etako bat aipatzen du, Harri Aroko errinozero ehiza irudikatzen duena. Baina, uler daiteke ere herriaren oroimenaren bila dabiltzan bi gazte euskaldunen metafora gisa.

Horretarako, amatek gidatuko ditu. Lur eta Ametsen “amonamatek” ez da eskolan irakatsitako historiaz fida, eta lehentasuna ematen dio iraganera bidaiatzeari eta gertakari historikoekiko harreman zuzenari, haurrak beren historiaren erabat jabe daitezen.

Narrazioa emate zaharrean bermatzen da, eta hura da oroimenaren ereduak transmititzaila. Bestalde, *Hau abentura!* filmaren bigarren azpituak argiki salatzen du euskaldunen historiaren bilaketa ez dela zailtasunik gabea izan.

Hautaturiko gaiak eta gidoiak memoria-sekuentziak sortu nahi dituzte, euskal historiografiaren kontranalisi egiteko helburuarekin. Irudi animatua eta Euskal Herriaren historia kontatzen duen Anderrek aldarrikatu betiko ahozko transmisioa emendatu bezala egiten dira teknika zinematografiko modernoari esker, eta euskal historiaren ezagutza eta ikuspegia hedatzeko tresna indartsu bilakatzen dira.

Andere pertsonaia iraganaren eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien arteko lotura da. Ilbasoekin bizitako abenturek filman aipatu gertakari historiko zehatzari buruzko ikuspegi sinkronikoa eskaintzen dute.

Azkenik, film osoaren ikusteak Euskal Herriko historiaren ikuspegi diakronikoa eskaintzen du eta oroimenerako erronka interesgarriak planteatzen ditu.

Kontakizuna

Ipuinaren munduaren bidez berrikusitako fresko historikoa

Lur eta Amets filmaren kontakizunean, ipuinaren irudimena, iraganera egindako bidaia eta kontakizun inizatikoa uztartzen dira.

- Historiari buruzko animaziozko film luze bat?

Zergatik kontatzen eta biziarazten dizkie Anderrek bere ilobasoei guti edo batere ezagutzen ez diren Euskal Herriko historiaren pasarte batzuk, zeinak betizapalkuntza-aren, gerlaren edo injustiziaren zeinupean baitira? Paul Ricœur-en arabera: «*Istoriok kontatzen ditugu, azkenean giza bizitzak kontatu behar direlako eta hauek kontatzea merezi duelako. Ohar hau egia da bereziki garaituen eta galtzaileen historia salbatzeko beharra dugunean. Sufrimenduen historia osoak mendekua oihuz eskatu eta kontakizuna behar du*»⁶. Nolazpait, Paul Ricœur-ek dioten bezala, erran liteke, animaziozko kontakizunarekin, *Lur eta Amets* filma saiatzen dela «*oraindik kontatu gabeko* –Euskal Herriko– *historia*»⁷ salbatzen.

Orain, ikusi behar nola eragiten duen iraganaren fabrikatzeak⁸ *Lur eta Amets* filman. Bistan dena, kontuan hartu behar da gertakari historikoen fikzionalizazio bat dela, eta ez artxibo-dokumentu bat. Beharrezkoa da, beraz, proposaturiko narrazio-matrizearen konplexutasuna kontuan izatea eta memoria kolektiboa eraikitzearen arrazoiak aztertzea.

Ororen buru, *Lur eta Amets* filmeko zortzi gaiak (Neolitikoa, erromanizazioa, Orreagako gudua, sorgin auziak, Karlismaldia, emate langileen borrokak, ikastolen sortzea eta gaztetxeen fenomenoak) ez dira eskas historialariek egin ikerketa lanetan. Gainera, eleberriko historikoa euskal literaturaren genero estimatua da 1950az geroztik. Azkenik, 1988an argitaratu *Gabai. Gure herriaren historia* komiki bildumako lehen lau liburukiek jadaneko garai eta ikuspegi historiko berberak landu zituzten.

Beraz, historiari buruzko animaziozko film bat izan ordez, *Lur eta Amets* «*aitzakiatzat*» edo «*koloraziotzat*» har daiteke. Izan ere, Pierre Sorlin zinema-kritikari eta historialariaren ustez, «*datu historikoak erabiltzeko bi modu daude: aitzakia historikoko filmak alde aurretik dakiguna errepikatzen du; kolorazio historikoko filmak ikusleak alde aurretik dakiena saihesten du*»⁹.

6 RICŒUR Paul. *Temps et récit 1*. Paris, Éd. du Seuil, 1983, p. 115.

7 Idem.

8 Jean-Yves Boursier, *La fabrique du Passé*, Editions Ovidia, 2010

9 SORLIN Pierre. «*Clio à l'écran, ou l'historien dans le noir*», in. *Revue d'histoire moderne et contemporaine*, tome 21 n°2, avril-juin 1974. p. 255.



- Ipuinaren irudimena

Lur eta Ametsek denboran zehar bidaiatuz bizitzen dituzten abentura eta gertakari historikoei, batez ere, eguneroko kalapitetatik atera eta heldutasun gehiago izaten lagunduko diete. Bidaia inizatiko horri esker, munduaren bestelako ikuspegia izanzen dute, eta giza harremanen eta jendarteak moldatzen dituzten gertakari historikoen konplexutasunaz jabetuko dira.

Gainera, bidaia inizatikoak beren nortasuna eraikitzei aukera emanen die; Lurrek ulertuko du arriskurako zale-tasuna duela eta aldizka probatuko du bere ausardia; Ametsek ikasiko du jendarteak mutikoentzat inposatu kodeei segitu gabe handitzen, eta, adibidez, nahiago izanzen du leize-ziloko paretak margotzea historiaurreko tribuko gizonekin ehizatzeraz joatea baino.

Hala, *Lur eta Amets* filmak ipuinen oinarritzko osagaiak berreraikitzen ditu.

Lehenik eta behin, amonaren irudia. Bakarrik bizi da zuhaitzez inguratu etxe handi batean, eta arbasoen historia transmititu nahi die ilobasoei. Supazterrean, emate eta gizonen oroitzapenak kontatzen hasten da. Denboran zehar bidaia eginaraziz, Euskal Herriaren iragana irakatsiko die haurrei. Ondotik, gatuaren irudia, hitz egiten duen eta amatek ulertzen duen gatu beltzaren figura. Gatuaren naturaz gaidiko ahalmen horrek eta amonaren haurrei denboran zehar bidaia eginarazteko ahalmenak botere magikoak dituztela pentsarazten dio ikusleari; hori baieztatzen egiten da, Erdi Aroan bidaiatzean, haurrek “amonamatek” ikusten dutelarik ilargi betean lilurazko ikuspenak ukaten. Orduan, Anderrek jakinarazten die belaunaldiz belaunaldi transmititu diren herriko emazteen jakintza sakratuak arriskuan direla. Aldi berean bihotz oneko irakaslea eta naturaz gaidiko ahalmenak dituen pertsona da amona; *Lur eta Amets* filman, zinezko ipuin-pertsonaia bat da.

«*Istoriok kontatzen ditugu, azkenean giza bizitzak kontatu behar direlako eta hauek kontatzea merezi duelako. Ohar hau egia da bereziki garaituen eta galtzaileen historia salbatzeko beharra dugunean. Sufrimenduen historia osoak mendekua oihuz eskatu eta kontakizuna behar du*»

Paul Ricœur



● Euskal mitologia

Gertakari historiko batzuen narrazioaz gain, euskal kondairekin eta mitologiarekin zerikusia duten elementu batzuk agertzen dira filman.

Lehenik, Ligiko zubiaren leienda aipatzen da, laminek gau bakar batean eraiki zutena. Sexu femeninoa edo maskulinoa duten eta iturrien eta erreken bazterrean bizi diren izaki hauek gizakien beldur dira. Kondairen arabera itxura bat baino gehiago har badezakete ere, emazte laminak beren oin palmatu eta urre koloreko orraziari esker ezagutzen dira filman. Laminek salbatzen dituzte erromatarrek preso hartu eta lanera behartutako Lur eta Amets, izaki magiko haiek gau bakar batean eraikitzen baitute zubia.

Ondotik, sorginaren irudia aipatzen da, ez bakarrik pertsekutatu den pertsonaia historiko gisa, tokiko irudimenari eta leiendei lotua den figura gisa ere. XVII. mendearen hastapenean, Hego eta Ipar Euskal Herrian, sorgin ehiza ikaragarria pairatu zuten bertako herriarrek.

Filman, Andere amonak ukatzen du sorginkeria deabruzko praktika bat denik, eta erakusten du sorginak sendabelarrekin trebetasun erdi-magikoak dituela jendea sendatzeko.

Hala ere, filmak aurkezten ditu euskal sorginekin lotu irudimenari dagozkion irudiak eta topikoak. Sorginek, inkisidoreak harrapatzea kausitu ondoan, akelarre bat eginez ospatzen dute garaipena. Euskaraz, akelarre hitzak –“aker” eta “larre” hitzen elkarketa– izendatzen du sorginak biltzen eta errituak ospatzen dituzten lekua. Kondairek diotenez, sorginak biluzik dantzan aritzen ziren han, aker ar baten inguruan. Irudikapen hori ikus daiteke Goya artistaren *El aquelarre* (1798) margolanean.

Lur eta Amets filman ere, sorginak biluzik ari dira dantzan akelarrean, ahuntz arrik gabe ordea, baina animalia hau Andereren lagunaren sartzeko atean ikus daiteke.

Animaziozko zinema euskaraz

● Berasategi eta aitzindariak

Helburu komertzialeko animaziozko zinema 1970eko hamarkadan sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Juanba Berasategi izan zen honen aitzindariarik bat. Animazioaren aitzindariak «ez zuten ia prestakuntza, ezagutza edo material egokirik¹⁰», baina euskal kulturaren alde lan egiteko borondate deliberatua zuten. Idazleak gidoiari lanetan hasi ziren: lehenik Koldo Izagirre, eta gero Harkaitz Cano, Unai Iturriaga, Unai Elorriaga, Uxue Alberdi edo Toti Martinez de Lezea. Animaziozko zinema euskal ahozko ondarea berreskuratuz hasi zen –ipuin tradizionalak *Kalabaza tripontzia* (1985) film luzean, bertsolariak edo pertsonaia karismatikoak *Lazkao Txiki* (1997) edo *Fernando Amezketarra* (1994) telesailetan–, ondare unibertsalaz jabetu zen gero *Ahmed*, *Alhambrako printzea* (1997) film luzean, eta sortzaileen istorioekin segitu zuen *Megasonikoak* (1997) edo *Betizu* (2003) film futuristen bidez.

Ondotik, 1990eko hamarkadaren amaieran, orduko bilakaera teknikoari jarraituz, euskal animazioaren industria prozesu teknikoak digitalizatzen hasi zen. Baleuko ekoiztetxeak *Megasonikoak* argitaratu zuen 1997an, ordenagailuz osorik ekoitzi zen animaziozko Europako lehen film luzea, Javier González de la Fuentek eta José Martínez Monterok zuzendua. 2012an, Baleukok Francis Nielsen *Blackie & Kanuto* filma argitaratu zuen, Europan hiru dimentsio estereoskopikotan filmatu eta ikus zitekeen animaziozko lehen film luzea.

● Juanba Berasategi, autodidakta aitzindaria

Juan Bautista Berasategi, Lotura Films zinema ekoiztetxearen sortzailea eta arduraduna, Pasai Donibanen sortu zen, Donostiatik hurbil, 1951n. 1977an hasi zen bere ibilbidea, *Ekialdeko Izarra* animaziozko film laburrarekin. Ondoren, 1979an, *Fernando Amezketarra* argitaratu zuen. 1983an, Antxon Ezeizak zuzendutako *Ikuska* izeneko 21 film laburren bilduman parte hartu zuen; euskal animaziozko zinema-industria baten garapenaren lehen harritzat jotzen da dokumental sail hura. Bilduma horretarako, Nafarroan euskara desgertzeari buruzko *Euskara galdutako Nafarroa* dokumental laburra egin zuen. Urte berean Kukubiltxo film laburra egin zuen. 1985ean, *Kalabaza tripontzia* euskarazko animaziozko lehen film luzea zuzendu zuen, eta Donostiako XXIII. Zinemaldiko Ohorezko Aipamena jaso zuen.

10 VICARIO, Begoña. In. *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi*. Zuz.: Joxean Fernandez. Ed. Arteaz-Pimientos, 2019, 197. or.

11 www.zinea.eus/2015/03/25/uxue-arzelus-kalabaza-tripontzia/

2015ean, Uxue Arzelus zinema-kritikariak honela adierazi zuen: «Ondo zahartu den pelikula bat iruditu zait *Kalabaza Tripontzia*. Marrazkiak era trakets batean mugitzen dira eta ezpain mugimenduak ez dauka zerikusirik pertsonaiak esaten ari direnarekin, baina horrek ere badu bere xarma. Marrazkilari batek mugimendu horiek banan-bana sortu izanaren xarma. Narrazio eta istorio aldetik, ordea, gaur egun ekoizturiko pelikula bat izan liteke¹¹».

Juanba Berasategi ilustratzaile errabiatua zen, eta kritikari profesionalek bere lanari egin harrera onari esker, gogotsu segitu zuen animaziozko obrak sortzen. Euskarazko zenbait film luze zuzendu eta muntatu zituen –*Ipar haizearen erronka* / *Balearenak* (1991), *Karramarro Uharte* (1998), *Ahmed*, *Alhambrako printzea* (1997), *Alhambrako giltza* (2002) eta *Barriola*, *San Adriango azeria* (2008)– eta *Fernando Amezketarra*, *Lazkao Txiki* eta *Txirrita* bertsolari ospetsuei buruzko telesail edo marrazki bizidunak ere.

1992an, Juanba Berasategik Lotura Films ekoiztetxea sortu zuen, eta euskarazko animaziozko zinema profesionalizatzeko eta egile-eskubideak defendatzeko engaiamendua hartu zuen. Berasategiren ekimenez, Lotura Films-ek EITBeuskaltelebistarekin eta Espainiako Autonomia Erkidegoetako telebista-kateekin batera ekoiztearen aldeko apustua egin zuen, eta ondorioz animaziozko film luzeak gaztelerazko bertsioan ere zabaltzea erabaki zuen.

«Ondo zahartu den pelikula bat iruditu zait *Kalabaza Tripontzia*. Animazio teknikari dagokionez antzematen da denbora igaro dela, noski, arraroa litzateke hala izango ez balitz. Marrazkiak era trakets batean mugitzen dira eta ezpain mugimenduak ez dauka zerikusirik pertsonaiak esaten ari direnarekin, baina horrek ere badu bere xarma. Marrazkilari batek mugimendu horiek banan-banan sortu izanaren xarma. Narrazio eta istorio aldetik, ordea, gaur egun ekoizturiko pelikula bat izan liteke».

Uxue Arzelus

● Saritutako egileak

Animaziozko zinema komertzialaz gainera, autore-animazioa ere oso emankorra zen Euskal Herrian, teknika digitalek eta erakundeen laguntzek akuilatzen zutelako. Hala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Etxepare Institutuaren bidez eta euskal zinematekaren laguntzarekin sustatzen duen *Kimuak* programak film laburren katalogoa osatzen du urtero, ekoizpen hori nazioartean zabaltzeko.

Animazio-jaialdietan parte hartu eta saritutako euskal film egileen kopurua emendatu da. 1995ean Animaziozko Film Onenaren Goya Saria ematen hasi zirenetik, 28 euskal film izan dira hautagaiak edota finalistak. Saritutako euskal animaziozko bost film luzeen artean, Maite Ruiz de Austrik, 2019an animaziozko film luzeak egin zituen emazte baka-rrak, bi sari eskuratu zituen. Azkenik, nazioarteko hainbat sari irabazi ondoan, euskal produkzioak Estatu Batuetan ere nabarmentzen hasi ziren. Enrique Garcíaren filmak bi aldiz iritsi ziren Oscar sarietako Film Labur Onenaren lehen hautaketaren parte izatera: 2006an Raquel Ajofrínekin egin zuen *Perpetuum mobile* eta 2009an Rubén Salazarrekin egin zuen *Daisy Cutter* film laburrak, hain zuzen. 2010ean, Pedro Rivero eta Alberto Vázquezen *Birdboy* film laburra iritsi zen zerrenda horren parte izatera.

● Telebistako serieak

Gaur egun, telesailen ekoizpena euskal animaziozko indus-triaren salbide garrantzitsua da. Hasieran EITBren lagun-tzarekin, Euskal Herriko ekoiztetxeen produkzioak Europa mailako banaketa-merkatura zabaldu dira. Hau da, adibidez, Miriam Ballesteros ekoizle eta Imira Producciones enpresaren arduradunaren kasua. *Lola & Virginia* telesaila Euskal Telebistarekin, Kataluniako tele-bista publikoarekin, RTVErekin eta France 3ekin egin duen lankidetzaren emaitza da. *Lola & Virginia* France 3 eta Nickelodeon France telebista kateetan zabaltzen da, eta beste herrialde frankofonoetan ez da oraindik zabaltzen.

Animaziozko zinema komertzialaz gainera, autore-animazioa ere oso emankorra zen Euskal Herrian, teknika digitalek eta erakundeen laguntzek akuilatzen zutelako.

● Lan proposamena: Animaziozko filmaren arbaso baten ezagutza egitea: zootropoa

Zinema bezala, animaziozko zinema ere mugimendu itxura ematen duen ilusio optikoa da. Ia denak ber-dinak diren irudi finkoak bat bestearen ondotik guti edo aski azkar agertzen dira, eta gure burmuinak etengabeko mugimendu gisa interpretatzen du irudi segida hura.

Ikasleak zinez jabetu daitezten irudi finkoak animatzeko zinematik duen gaitasunaz, proposa dakieke zinema asmatu aitzineko jostailu optikoetako bat fabrikatzea. Era guzietako teknikak daude irudi batzuk sortzeko; zootropoa da horietako bat. William George Horner ingelesak Londresen 1833an eta Stampfer austriarrak Vienan 1834an asmatu omen zuten zootropoa. Danbor birakaria da, eta bazterrak zilatuak ditu, arteka erre-gularrekin. Barneko bazterren inguru guzian, arteka bezainbat irudi daude. Danborraren beheko oinarria ardatz batean finkatzen da, eta horrela objektua bira daiteke. Objektua biraka ari den bitartean, arteka horietatik sekuentzia bizidunen mugimenduak ikus daitezke; objektuak itzuli osoa egin duelarik, ger-takizuna berriz hasten da, eta behin eta berriz errep-i-katzen da. Tresna horrekin egindako lehen animazioek animaliak irudikatzen zituzten, eta izena hortik dator.



UPOPIren (Irudien Herri Unibertsitatea) webgunean zootropoa fabrikatzeko tailer bat animatzeko doku-mentu oso bat aurkitu daiteke (frantsesez).

↳ upopi.ciclic.fr/transmettre/parcours-pedagogiques/le-precinema/seance-3-le-zootrope

Filmaren azterketa

- 00:00 – 00:03:08
Lur eta Ametsen burasoek ezkontza bat dute asteburuan, eta haurrak Andere amonaren etxean uzten dituzte.
- 00:03:09 – 00:03:43
Anderek korrante elektrikoa moztan du etxean, ilobasoek ordenagailuan jostatzeari utz diezaioten eta afaltzera jin daitezten.
- 00:03:44 – 00:04:30
Arratsean, supazter xokoan, Anderek Lur eta Ametsi proposatzen die arbasoen historia kontatzea eta biziaraztea, denboran zehar bidaiatuz.
- 00:04:31 – 00:14:30
Bidaiaren lehen etapa: historiaurreko garaia itzultzea. Tribuko buruak mutiko gazteak ehizatza behartzen ditu. Lurrek Ametsen lekua hartzea proposatzen du. Bere trebetasunari eta asmatu duen arkuari esker, neskatoa ehiztari taldean nagusitzen da.
- 00:14:31 – 00:15:53
Orainera itzultzea. Lehen bizipenaz liluraturik, haurrek amaxiri eskatzen diote istorio gehiago kontatzea. Orduan, abentura berri bat bizitzeko, Baltaxar gatuaren gibelatik ateratzen dira, etxetik kanpora.
- 00:15:54 – 00:19:33
Lur eta Ametsen erromatarren okupazioaren garaia bidaiatzen dute. Bi soldadu erromatarrek preso hartzen dituzte, harriak botatzeagatik. Haurrak behartuak dira zubi bat eraikitza.
- 00:19:34 – 00:25:24
Anderek laminei laguntza galdegiten die, zubia gau bakar batean eraikitza. Anartean, bi haurrak libratzen ditu.
- 00:25:25 – 00:35:06
Denboran aurrera; Lur eta Amets Goi Erdi Aroan agertzen dira. Karlomagoren tropen inbasioaren lekuko dira, ahalgabe. Tropa haiek Nafarroa okupatzen dute.
- 00:35:07 – 00:36:15
Orainera itzultzea. Lur, Amets eta amonak perretxikoak biltzen dituzte, basoan. Anderek ilobasoei arbasoen sorginkeriaaren tradizioa aipatzen die.
- 00:36:16 – 00:38:20
Denboran atzera berriz. Lur eta Amets Behe Erdi Aroan bizi dira. Elizak gaitzesten dituen Zugarramurdiko familiaren eta sorginen ohiturak eta jakintzak kontatzen dizkiete Andere eta bere lagunak. Arriskuan daude.
- 00:38:21 – 00:45:24
Inkizizioa lau kide Zugarramurdin sartzen dira. Haurrek lau gizonak harpe batera daramatzate, eta inkisidoreak han jarritako tranpan erortzen dira.
- 00:45:25 – 00:46:46
Orainera itzultzea. Lur eta Amets kalapitan ari dira, eta orduan Andere baliatzen da XIX. mendearen lehen erdian Euskal Herria zatitu zuen liberalen eta karlisten arteko gerla kontatzeko.
- 00:45:56 – 00:56:34
Denboran gibelera berriz. Abentura berria bizitzeko dute anai-arreba bikiek, karlistaldien gerla zibilaren garaian. Lur eta Amets preso eginak dira; Lur karlistek eta Amets liberalak.
- 00:56:35 – 00:57:06
Haurrak kontsolatuak dira, amonaren etxean.
- 00:57:07 – 1:04:16
Denboran atzera berriz. Familia XIX. mendearen bukaerako industriaren garapen handiaren garaian dago. Tabako fabrika batean egiten du lan Anderek. Lan baldintza hobeak eskatzen dituzten emazte langileen matxina bizitzeko dute Lur eta Amets.
- 1:04:17 – 1:15:05
Beste bidaia bat iraganera. Familia Ipar Euskal Herrian bizi da, Francoren diktaduragatik ihes egin behar izan baitu. Baina amaxik muga zeharkatu eta Donostiara joatea erabakitzen du, ikastola klandestino bat sortzeko han.
- 1:15:06 – 1:16:45
Urte batzuk geroagoko Espainiako trantsizio garaian aurkitzen da familia. Garai hartan zailtasun berriak agertzen dira: krisi ekonomikoa eta polizia eta militarren aginpideen iraupena. Felixek, familiako beste kide batek, gaztaroaz baliatu eta bere ideia libertarioak aldarrikatzeko asmoa du.
- 1:16:46 – 1:18:02
Gauetz, Felix, Lur eta Amets atxilotzen ditu poliziak, herriko paretetan "Soldaduskarik ez!" idazteagatik.
- 1:18:03 – 1:18:57
Kartzelan sartuak dira eta uraren gorakadak harrapatzen ditu; izan ere, 1983ko uholdea Elgoibarreko herria suntsitzen ari da. Baltaxarrek hirukotea preso gelatik libratzen du.
- 1:18:58 – 1:23:40
Uholdeak herria suntsitzen segitzen du, eta, azkenean, bazterrak lasaitzen dira. Hertzainak rock taldeko kideen musika tresna bat uretatik salbatzen dute Lur eta Amets. Kontzertu gela den artean konpontzen dute eta Anderek ilobasoei baimena ematen die Hertzainak-en kontzertura joateko.
- 1:23:41 – 1:24:31
Orainera itzultzea. Lur eta Ametsen burasoak ezkontzatik itzultzen dira. Haurrek amona besarkatzen dute, joan aurretik.
- 1:24:32 – 1:26:24
Haurrek itzulerako bidean amaxiarekin pasatako asteburua laburbiltzen dute, eta burasoen garaiko rock musika entzutea eskatzen dute, berriz.

Sekuentzia baten analisia

“Franco arrantzan”


37. sekuentzia [1:07:39–1:08:19]



1




2




3



4



5



6

Filmaren barneko sekuentziaren jokagaiak eta egoera

Diktadura frankistaren garaia (1939-1975) du aipagai sekuentziak. Filmaren azken herenean agertzen da, Donostian Anderek ikastola bat sortzeari buruzko sekuentzia baino lehen. Filmaren zati labur honek Francoren oporrak kontatzen ditu. Azken hau entseatzeko da nola edo hala Donostiako badian arrantzatzea.

Sekuentziaren interesa komikiaren kodeekiko eta alderdi karikaturistarekiko loturan datza. Hortik abiatuz, erregimen frankistaren eta Espainiari buruz zuen ikuspegi nazionalistaren kontrako kritika egiten du, frankismoa kultura eta hizkuntza aniztasunaren kaltetan inposatu baitzen. Hain zuzen, Francok, boterea hartu eta lehen urteetatik, Espainiako Bigarren Errepublikak (1931-1939) onartu zituen aniztasun horien aurkako errepresio politika eraman zuen.

Sekuentziak bi zati ditu. Lehena, diktadorearen jarduerari buruzkoa da; bigarrenak, Andere eta bere ilobasoak Donostiara iritsi direla erakusten du. Oroitarazi behar da mugatik hurbileko hiri hura zela, historikoki, errege familiako kideen, aristokraziaren eta XIX. mendearen bukaeran Espainiako burgesia kontserbadorearen opor lekua. Francok hiri hartan oporretako egoitza bat zuen: Aieteko Jauregia. Baina, Donostian ere sinatu ziren monarkiaren amaierako akordioak 1930ean, Bigarren Errepublika deklaratu baino lehen. Gainera, sekuentzia horretarako leku hura hautatzea sinbolikoa da, eta, bidenabar, erregimen frankistaren eta honek gizarte zibilean zituen sostenguen kontrako kritika egiteko parada ematen du.

Marrazki bizidunen itxurako sekuentzia bat

Sekuentziaren lehen zatia plano panoramiko batekin hasten da [1]. Plan mota horri esker, ekintza argi eta garbi koka daiteke espazioan: Donostiako badian gertatzen da. Gero, travelling mugimendu bati esker, koadroa pixkanaka hertsitzen da Francoren pertsonaiaren inguruan, eta, orduan, luxuzko yateko pontoiaren gainean arrantzatzen ikusten da [2]. Bi bizkartzainek inguratzen eta babesten dute. Bai soinu-elementuek eta bai ikus-elementuek, kontrasteak eta gehiegikeriak nabarmenduz, Franco jeneralaren karikaturazko irudia osatzen dute. Dena dago antolatuturik pertsonaia hura irrigarri bilakatzeko. Bizkartzainen gorputzak handiak dira Francoren izari ttipiari konparatuz. Halaber, urpekari batek nahitara amura lotzen duen atuna izugarri handia da, arrantza arrakastatsua izan dadin eta diktadorea gaitzi ez dadin [3]. Yatearen tamainari dagokionez, oroitarazten ditu diktadorearen handinahia eta herriaren bizkar metatu aberastasuna. Azkenik, Franco plano kontrapikatuaren erakutsirik ere, ez da handiagoa; aitzitik, bere izari ttipia eta ahultasun fisikoa nabarmentzen dira [4].



7



8



9



10

Ordena frankistarekiko haustura

Arraina tiratzea neke zaiolarik diktadoreak egiten duen soinuak areagotzen du arrantzaldiaren itxura irrigarria. Bizkartzainek Franco atxiki eta tiratu behar dute, uretara eror ez dadin [5]. Soinu horrek marrazki bizidunen soinu efektuak oroitarazten ditu. Erritmo urriko musika militar batek irekitzen du sekuentzia, eta diktadura militar dekadente bat gogorarazten duen tronpeta baten soinu disonanteak berehala eteten du. Tronpetaren soinu disonantea diktadorearen plano ertain kontrapikatuaren momentuan entzuten da.

Azkenik, hiru gizonak betaurreko beltzak dituzte soinean. Alta, emozioak begiradatik pasatzen dira, erran zaharraren arabera “arimaren isla” baita begirada. Begi ikusezinak dituzten hiru gizonak, beraz, gizatasunik gabeak direla erakutsi nahi da. Betaurreko beltzak janzteia eta Francok “bere” harrapaldiaren aitzinean egiten duen zeinu faxista erregimenaren krudeltasuna salatzen duten elementu hotzak dira [6]. Sekuentzia honetan, liderraren ahuleziak –eta bereziki ahulezia fisikoak– erakusten dira. Franco ttipia ezaguna zen eta trufa egiten zitzaion boz mehea eta kasik femeninoa zuelako; erregimenaren izaera autoritario eta patriarkalaren kontrako ezaugarria zen hura. Gainera, Francok harrapakinen aitzinean hartzen duen posturak, eta gero prentsako argazkian egiten duen garaipenaren zeinuak, pertsonaiaren alderdi emagizon hura azpimarratzen du [7]. Azkenik, argazkiaren zuri-beltzeko koloreak irudi izoztu batean sartzen du jenerala, eta erakusten du diktadura hilzorian dagoela.

Argazki honek sekuentziaren bigarren zatirako transizioa egiteko aukera ematen du. Donostiako hiriaren erdialdeko aulki batean jarririk den gizon batek *La voz de España* egunkaria irakurtzen du, erregimenaren propaganda-aparatuko egunkaria, Donostian argitaratu zena, 1936 eta 1980 urteen artean.

Egunkariaren azalean diktadorearen balentriak agertzen dira [8]. Pasarte horrek Francoren nortasunaren gurtza oroitarazten du, erregimenak kasik 40 urtez landu baitzuen diktadorearen pertsonalismo hura. Azkenean, hala ere, sekuentziak duen dimentsio karikaturista eta kritikoak erregimenaren menpeko prentsa hura inguratu eta gainditzen du. Irakurle sutsuari buruzko lehen planoaren ondotik, plano ertain bat bada [9]: irakurlearen gibelean, “Casa Ponsol” Donostiako txapel denda historikoa ikusten da. Frantziar jatorriko Bernardo Ponsolek sortu zuen, XIX. mendearen lehen erdian. Dekoratu honek hiriaren jatorri burgesak gogorarazten ditu.

Plano ertain honi esker, bazterren lasaitasuna ikus daiteke: Gipuzkoako hiriburuko karrika laukietan, oinezkoak kalmeki ibiltzen dira. Baina, bat-batean, Andereren autoa agertzen da. Oinezko bat ustekabean harrapatu eta baztertzerantz behartzen du, eta *La voz de España* irakurlea eta txapel denda ikusten ziren plano bat betetzen du (10). Andere hirira heltzearen eszenaratzeak erakusten du ordena frankista hausten duen elementu nahasgarria dela, eta ondoko sekuentzian Anderek abian ezarriko duen erresistentzia kulturala eta politikoa iragartzen du.



Eszenaratzea

● Lur eta Amets, Euskal Herriaren historia ipuin saila pantailara egokitzea

Lur eta Amets animaziozko filma Uxue Alberdik eta Unai Elorriagak idatzitako *Lur eta Amets, Euskal Herriaren historia* liburuen egokitzapena da. Bederatzi ipuinak elkarretarik bereziak izanik, filma idazteko tenorean beharrezkoa zen honakoa egitea:

- Kontakizuna egituratzea eta oroimenean egin bidaia hori onargarri bilakatuko zuen hari nagusia asmatzea;
- Zinemaren hizkuntza erabiltzea, garaien arteko aldaketak adierazteko eta garai historiko baten eta bestearen arteko lotura sortzeko.

Filmaren lehen minutuek hari nagusia osatzen duten espazioa eta denbora erakusten dituzte: Lur eta Ametsen "Amonamatziren" etxean pasatzen dute asteburua, burasoak ezkontza batera doazen bitartean. Amatz horrek, bere istorioen bidez, bideo-jokoaren baino askoz abentura zirrargarriagoak biziaraziko dizkie. Lau pertsonaiak —Lur, Amets, Amonamatz eta Baltaxar— hiru aldiz itzultzen dira orainera, espazio-denbora honetara. Joan-etorri horiek hainbat funtzio betetzen dituzte:

- Istorioren ondotik Lur eta Ametsen erreakzioak erakustea;
- Erakutsi berri dena ikuspegi historiko batean kokatzea, sorgin ehizaren ondoko sekuentzian Amonamatzik Ametsi erantzuten diolarik bezala: «*Nahiago nuke horrela bukatu izan balitz, baina oso bestelako haize batek jo zuen...*»
- Errealitatearen eta fikzioaren artean zubiak sortzea: Baltaxarrek erromatarren garaira ekarri harri zakua; Amonamatzik Lur eta Ametsi zubi erromatarren azpian zera esaten dien eszena: «*Erran nizuen abenturak ez direla beti ongi finitzen*»; Karlismendiko liskarrak errepikatzen dituen haurren arteko kalapita; gaizto bikotea filmaren bukaeran berriz agertu delarik eta Lur eta Ametsen burasoek autora igoarazten dutelarik.

Denbora eta espazioko joan-etorri horiez gain, garai historikoen arteko aldaketak ulertarazteko zinema-hizkuntzaren zenbait arau erabiltzen dira, hala nola *zoom in-a*, itzaltze kateatua, eszenan elementu bat erabiltzea dekoratua ezkutatu eta espazio berri batera pasatzeko, planoak / kontra-planoak edo mugimenduen arteko junturak.

Garrantzitsua da nabarmentzea Lur, Amets, Amonamatz eta Baltaxarren pertsonaiak ez direla denborazehar bidaiatzen duten bakarrak. Bigarren mailako pertsonaiak ere, "gisakoak" eta "gaiztoak", abenturaren parte dira. Hala, gaiztoen bikotea filmean ardura agertzen da, besteak beste soldadu erromatar, Karlomagnoren soldadu, Inkisizio kide, soldadu karlista eta soldadu liberal, guardia zibileko agente eta udaltzain gisa. Lehenik historiaren tribuko burua den gizona, gero Karlomagnoren garaiko erresistentziaren liderra da. Eta, azkenik, lehenik Karlomagno den pertsonaia, Zugarramurdiko inkisidorea da ondotik, eta Bilboko fabrikako nagusia bukaera aldean. Ikuspegi narratibo horrek koherentzia eta sendotasuna ematen dio filmari, eta, hala, ez da telebistako logika batean erortzen, bata bestearen ondotik ezarritako gertakari historikoen segida bat balitz bezala.



● Gaur egungo gizarte gaiak agerraraziz denboran zehar egindako bidaia


Euskal Herriko historiako gertakari batzuen beste aldea kontatzeaz gain, filmak zenbait irudikapen estereotipatu hausten ditu.

Lehenik, pertsonaia nagusienak: Lur eta Amets ez datoz bat genero **femeninoaren** —delikatua, gozoa, ameslaria— eta **maskulinoaren** —indartsua, ausarta, abenturazalea— estereotipo tradizionalekin. Film osoan zehar, Lur ausarta, kirolaria eta abentura zalea da; Amets, aldiz, ameslaria, sortzailea eta sentsibiltate handikoa da. Amonamatzik animatzen ditu haien nahikundeari jarrai diezaioten eta onar dezaten diren bezalakoak izatea, baina, pertsonaia matxistekin topo egiteak ezinbestean oroitarazten die haien neska eta mutiko izaera eta gizarteak haiengandik igurikatzen duena:

- Leize-ziloan, Trumoi tribuko buruak ez dio bere iritzia eskatzen Ametsi, eta erraten dio haiekin ehizara joan beharko duela. Ametsen ezetz erantzuten duelarik, hor bildutakoak hartaz trufatzen dira eta zeharka ez dute onartzen hark marraztu nahi izatea.
- Orreagako guduan, Gartzia Aritzak gizonak borrokarako prestatzen ditu, eta Amonamatziri eskatzen dio tropen horniduraz arduratzeko. Orduan ere, Lurrek besteekin borrokatzeko nahia adierazten du.
- Lur eta Amets karlisten eta liberalen arteko gerlaren ondorioz bereziak direlarik, Amets ihes egiten saiatzen da, baina soldadu batek harrapatu eta berotzeko arnoa edatera eramaten du. Aldiz, Lurrek karlistekin zailtasunak ditu, soldadu batek eskua ezartzen baitio ipurdi mazelan.
- Tabako fabrika Don Policarpo zera erratera ausartzen da: «*Andreak lana konplitu behar du, etxean eta fabrika. Ekin beharri!*», eta Amonamatzik fabrikatik kanporatzen du, baliozko arrazoirik gabe.

Hala ere, filmak mezu positibo batekin erantzuten die gertakari horiei: bere fresnei esker Lurrek errineroz ehizan parte har dezake, eta horrela frogatzen du gizonak bezala ehizatzeke gai dela; emazteak eta gizonak batera agertzen dira Karlomagnoren armadari buru egiten diotelarik; errespetu falta izan duen soldadua lurrera pusatzen du Lurrek, eta tropako beste kide batek neskatoari laguntzen dio; tabako fabrikako emazte guziek Andererekin bat egiten dute, eta Don Policarpo greba baten mehatxua egiten diote Andere kanporatzen badu.

Bestalde, emazteak gizartearen duen ohiko lekua zalantzan ezartzen laguntzen duten eszenak erakusten ditu filmak, batzuetan: leize-ziloan emazte batek bularra ematen dio niniari; Karlomagnoren garaian, emakume batek harriak altxatzen ditu; Amonamatziren eta Graxianaren arteko maitasun harremana normalizatzen du; sorgin artatzailearen irudia berreskuratzen du; eta salatzen ditu «*[beharra] gizonezkoek baino arinago egiten duten eta erdia kobratzen duten*» emazteen lan-baldintzak.




● Historiaren ifrentzua, umorez bete eta irakurketa maila anitz dituen kontakizuna

Abenturan oinarritzen den *Lur eta Amets* filmak oroz gaine-tik helburu didaktikoa du, eta filmaren xede nagusia da Euskal Herriko historiako gertakari batzuen irakurketa alternatiboa proposatzea. Umorea da diskurtso ofiziala ikuspegi kritiko batean ezartzeko errepikatzen den baliabidetarik bat. Erromatarren garaian, Erdi Aroan, aro industrialean edo diktadura frankista pean, indar menperatzaileak irrigarri agertzen dira: erromatarrek berehala lekuak husten dituzte eta hala-holako euskara batean mintzo dira; Karlomagno abisatzeko olifantea jotzen duen Errolanen gertakari famatua heroismo gabe erakusten da eta ez dator bat *Errolanen Kantorea* kantuaeren inguruan eraiki den irudimen kolektiboarekin; Don Policarpo tabako hostoz estalirik agertzen da, marrazki bizidun batean edo Daltondarren gertaldi batean bezala; Franco diktadorea izari ttipiko pertsonaia bezala aurkezten da, eta ez da gai arraina bakarrik arrantzatzeko (ikus gorago sekuentziaren analisia); guardia zibileko agenteak zozo gisa irudikatzen dira eta gaztaina batek kolpatzen ditu. Nabarmentzekoa da aipatu adibideetan, irria batez ere egoera- eta keinu-komikoan oinarritzen dela, eta, beraz, umorea aise uler dezakeela publiko gazteak.

Umorearen narrazioa puntuatzen laguntzen duen beste elementu bat Baltaxarren pertsonaia da. Katu kalakari horrek ez du paradarik huts egiten gertaerak nahasteko edo bere ideiegatik protagonistak zailtasunetan ezartzeko: Orreagako guduan, axuri bat lasterkatzen du eta bekoz beko gertatzen da marro batekin, eta ondorioz baskoiak behartzen ditu eraso egitera; behin baino gehiagotan, Amonamatxik izpiritu bizia ukan behar du Baltaxarrekin izandako elkarriketak estaltzeko; gizakiek ulertzen ez dutenez, ahalke gabe trufa daiteke eta kritika dezake.

Umorezko baliabide horiei esker, *Lur eta Amets* filmak gazteei kontakizun nagusiaren beste aldea kontatzeko aukera ematen du, eta zenbait gertakariaren zehaztasunari dagokionez askatasuna hartzera menturatuz gainera. Hala ere, soinu-bandan, irudian edo erreferetan diren kultura erreferentzia ugariak irakurketa maila anitz eskaintzen dituzte eta irudimen kolektiboa elikatzen dute. Hala, ikusle helduagoa gai izanen da Ligiko zubiaren leiendako laminak, Eneko Aritza (Iruñeko lehen erregea), Akelarreko akerra, Santutxuko tabako fabrikako emazte langileak, Iparragirrek erbestetik itzuleran idatzi *Ara nun diran* kantua, gaztetxeen sorrera edo nuklearraren kontrako borrokak ezagutzeko.



Nabarmentzekoa da aipaturiko adibideetan, irria batez ere egoera- eta keinu-komikoan oinarritzen dela, eta, beraz, umorea aise uler dezakeela publiko gazte batek.



● Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik

Lur eta Ametsak Andere "Amonamatxi" deitzen dute. Izen hori "amona" eta "amatxi" hitz sinonimoak elkartzetik dator. Pentsa daiteke idazleek nahitara hautatu dutela hitz elkartu hori, amonaren irudia izendatzeko bi hitz horiek erabiltzen dituzten ikusle euskaldun guziak biltzeko. Izenen sinbolismoan, ohartaraz dezagun Lur hitzak "lurra" erran nahi duela; Lurrek badu nortasun, neskato deliberatua da, eta pertsonaia ausarta da. Amets anaia bikia, bere izenak dioen bezala, gogoetatsua eta ameslaria da.

Film luzearen azken zatian, Amets bardo bilakatzen da, Jose Maria Iparragirre (1820-1881) poeta eta kantari erromantikoa bezala, eta *Ara nun diran* kantatzen du. Ohartarazi behar da *Ara nun diran* kantuaeren doinua Pierre Dupont (1821-1870) Lyongokoplari iraultzaileak sortu omen zuela. *Ara nun diran* Iparragirrerentzat Argentinan erbestera ondoan herrira itzultzeko kantua izan zen. *Lur eta Amets* filman, Amets, Lur, Andere eta Baltaxarrekin Sarako mugako herria (Lapurdi) utzi eta Donostiara (Gipuzkoa) heltzen diren momentua markatzen du, Andere ikastola klandestino bat sortu behar baitu han. Ulertzen dugu Andere Saran bizi zela, Espainiako gerla zibilaren ondotik mugako herri hartan errefuxiatu baitzen. Orduan, filmaren soinu-bandak euskal kantuaeren erreperitorio herrikoia entzunarazten dio ikusleari. *Donostiako hiru damatxo* edo *Artillero dale fuego* donostiar kantu herrikoien doinu estradiegetikoak entzuten dira. Batzuetan, soinu-banda intradiegetiko bilakatzen da, txikitero alegerak agertzen direlarik (egunero auzoko ostatu batetik bestera poteoan ibiltzen diren lagun taldeak), eta *Hau dek umorea* eta *Artillero dale fuego* kantatzen dituztelarik. Era berean, haurrek *Ikusi mendizaleak* ereserkia ikasten dutelarik.

Gero, euria teiltatuen gainean isuri eta ibaiak gora egiten dueneko irudiekin jostetan, kontakizuna frankismoaren bukaeratik 1983ra pasatzen da. Felix, Lur eta Ametsen lehengusua, gaztetxera doa, Hertzainak taldearen kontzertua entzuterako. Haurrek harekin joan nahi lukete, baina Anderek debekatzen die, gazteegiak direlako. Orduan, Lurrek «*Gazte gara gazte, eta ez gaude konforme*» erantzuten dio, eta hori Lourdes Iriondok 1968an egin zuen kantu ezagun baten leloa da. Ondotik, uholdeek bultzaturik, Baltaxar gatuak *Itsasontzi baten* ahapetik kantatzen du, Kaxiano eskusoinu-jotzaile itsuak sortu zuen abestia, itsasoan leku ezezagun batera partitzen den ontzi bati buruzkoa. Azkenik, musika intradiegetikoaren ondotik, musikariak bilakatzen dira istorioaren protagonista. Hertzainak taldeko Josu Zabala kantugile eta akordeoi jolea agertzen da, ur eta lokatz olatuak arrastaka eramanez, eta, ondoren, Gari taldeko kantari nagusia agertzen da. Azkenik, uholdeen ondotik elkarrekin konpondutako gaztetxean, Felix, Lur, Amets, Andere, Baltaxar eta Hertzainak taldearen jarraitzaile guziek *Nola aldatzen diren gauzak* abestiaren gainean pogo ero bat dantzatzen dute. Eta, Lur eta Ametsen burasoek Andereren etxeko supazter xokoan dantzan eta alde orotara saltoka berriz kausitzen dituzte haurrak.



Luzapen gisa

● Ahozko tradizioetik gaur egungo irudimenera

Euskal kultur sorkuntza modernoaren zati handi bat ahozko kulturean oinarritzen da, XIX. mendearen bukaeran kontalari herrikoiek transmititu eta etnologo eta ikertzaile frantses, ingeles edo euskaldunek transkribatu dutena. Haren bultzatzaileak izan ziren Jean-François Cerquand *Légendes et récits populaires du Pays basque* (*Euskal Herriko leienda eta ipuin herrikoiak*, 1876) lanaren egilea, Saran (Lapurdi) bizi izan zen Wentworth Webster apaiz anglikanoa eta Julien Vinson, eta, ondotik, Resurreccion Maria Azkue, Arturo Kanpion eta Jose Migel Barandiaran.

Kalabaza tripontzia (1985) euskal animaziozko lehen filma Barandiaran eta Azkueren ipuin bildumetan inspiratua zen. Filmak bata bestearen ondotik kontatzen ditu animaliek eta gizonek hizkuntza bera hitz egiten zuten garai mitologikoetako istorioak: Tartalo begibakarra, Herensuge zazpi buruko dragoia, Kukubiltxo izaki ttipia eta beste pertsonaia anitz animatu zituen pantailan.

2011n, *Gartxot* film luzeak Itzaltzuko bardearen egiazko istorioa kontatu zuen. XII. mendekoa den kontakizun hau Arturo Kanpionek 1935ean idatzi zuen, Itzaltzuko herrian (Zaraitzuko ibarrean, Nafarroan) kontatu baitzioten. Gisa horretan, Gartxotek bizitako tragediaren ahozko kontakizunak zortzi mende iraun zuen herriaren oroimenean. *Gartxot*, *Itzaltzuko bardoa* lanak kontatzen du Pirinioetako ibarretan ezarri zen sistema feudalaren kontrako borroka desorekatua. Gartxot bere jopu estatututik libratu zen, baina Mikelot semea Conques-eko fraide frantsesek kudeatzen zuten Orreagako abadiaren esku utzi behar zuen. Bardoarene seme Mikelotek ahots bikaina zuen,

eta fraideek salmoak latinez kanta zitzen nahi zuten. Bizkitartean, Mikelotek uko egin zion horri eta Orreagako abadiatik ihes egitea lortu zuen. Aita aurkitu zuen gero, eta elkarrekin ekin zioten berriz bardoen bizi ibiltariari, herriz herri, euskaraz kantatuz. Elizaren boterea eta botere feudala aita eta semearen gibeletik ibili ziren, eta bi euskaldunek bururatze tragikoa bizi izan zuten.

Kontuan har dezagun *Lur eta Amets* filmaren gertaldia, non haurrek zubiaren eraikuntzan parte hartu behar baitute; Jean-François Cerquand-ek bildu zuen Ligi-Athereiko zubiaren (Zuberoa) istorioa da aipagai. *Lur eta Amets* filman, irudimen berri bat sartu dute idazle garaikideek. Kontalaria ez da espaziora bidaiatzen duen pertsonaia estralurtar bat, *Kalabaza tripontzia* filman bezala. Alderantziz, Andere amatxiaren pertsonaia —amona modernoa, balio progresistez betea— ahozko transmisioaren gordetzaille bilakatzen da, eta parada ematen du XXI. mendean ere “Behin bazen...” hasten diren eta supazterrean kontatzen diren istorioekin berriz konektatzeko. Hala, animaziozko film komertzialak aukera ematen du euskal filiazio literarioa hurbiltzeko, eta kasik imajina genitzake *Lur eta Amets* Jean Barbier-ek 1924an idatzitako bertso hauek erraten ari: “Oi, Amatxi ona, istorio bat, otoi; zure politena?”, eta “Amatto, irriño bat ageri hortzetan, poliki hasia da xahar konderetan: “Bertz’orduz bazen beraz bele bat zaharra. Hegal bat zuen luze, bertzea laburra... Hegalño hau ez balitz izan hoinen txarra, kondaira izanen zen luzeago, haurra!”

ZINEMAREN HIZTEGITXOA



Hiztegi ttipiak bildumatik hartua.
Hendaia, Biarritz, Baionako hiriak – EHE – EEP
Marrazkiak: Laure Gomez

